

Arieh Shoval-ekin elkarrizketa

Ez da hau Arieh Shoval euskal aldizkarietan elkarrizketatzen den lehenengo aldia. 1976. ean ANAITASUNA aldizkariak (323-24 zenb.) elkarrizketa bat argitaratu zuen, urte hartako uztai-lean Donostian ospatu zen elebitasunari buruzko mintegian partaide zela eta.

Geroztik, Israelen izandako euskal delegazioek beti izan dute Arieh Shoval-en laguntza baliotsua, bai aholkuak emanaz eta bai Israelgo zenbait pertsona eta elkarte linguistikorekiko harremanak erraztuz.

56 urte ditu eta gaztelaniaz ongi mintzatzen da, hiru urtez Argentinan, Israelgo enbaxadan egona baita.

ZUTABE: Shoval jauna, esan al zeniezaguke, labur bada ere, zein izan den zure ibilbide profesionala?

SHOVAL: Humanidades-etan lizentziatu nintzen (hizkuntza eta literatura hebraitar espezialitatean, Biblian eta historian) eta baita Pedagogian ere, Jerusalem-eko Unibertsitate hebraitarrean.

1950.ean irakaskuntzari ekin nion, hasieran lehenengo etapan, eta gero bigarrean, klaseak emanaz.

1964-67 urteetan, Tel-Aviv-eko Unibertsitatean Pedagogia fakultateko irakasle izan nintzen.

1960.ean Hezkuntza eta Kultura Ministeritzan sartu nintzen eta oraindik

ere han ari naiz lanean (3 urtetako tartea salbu, 1961etik 1963a bitartean Buenos Aires-en Israeliek daukan enbaxadan laguntzaile kulturala izan bait nintzen, eta garai hartan izan nuen, hain zuzen ere, gaztelera ikasteko aukera).

Hezkuntza eta Kultura Ministeritzan zenbait funtzio bete nituen:

- Goi-mailako Irakaskuntzan Kontseiluko Idazkaritza.
- Ministeritzako Laguntzaritza.
- Pedagogi Saileko Zuzendaritza.
- Azterketa Saileko Zuzendaritza.
- Telebista Hezitzaileko Zuzendaritza.

Gaurregun Ministeritzako Zuzendariorde Orokorra naiz.

ZUTABE: Zein da, Shoval jauna, Euskal Herriarekin lotzen zaituen harremana? Nola sortu zen?

SHOVAL: Euskal Herriarekiko harremanak Franco hil eta berehala sortu ziren, Donostian elebitasunari buruz izandako mintegi batetan partaide izatera gonbidatua izan nintzenean.

Mintegi honetan, hebraieraren berpizteari buruzko hitzaldia egin nuen, 500en bat euskaldun gazte entzule nituelarik, euskara-irakasleak denak. Ez zait sekula ahaztuko zein hunkigarri gertatu zitzaidan euskal irakasle gazte haiekin izandako topaketa. Haien garra

eta bizitasuna! Itxaropen handia somatzen zen haien artean; gure Israelgo independentziaren aldeko burruka garai-ko giroa gogorazten zidan. Garai hartan izan nuen, baita ere, Euskal Herriko zenbait pertsona goren ezagutze-ko poza, hala nola, Mikel Lasa, Joseba Intxausti, Luis Mitxelena, Xabier Kintana eta Imanol Berriatua zena; denekin izan nuen adiskidetasun sakona.

Euskal Herrian izan eta handik laster Xabier eta Imanol Israelera etorri ziren, gure hizkuntza nazionalaren berpiztea hurbiletik ezagutu asmoz. Bisita atsegin haren ondoren, ez dut uste Israelera etorritako Euskal Delegazio guztiekin harremanetan jartzeko aukera bat bera ere galdu dudarik. Beti ere, Euskal Herriaren autonomi prozesuaren aurrerakuntza ezagutu asmoz eta laguntzen saiatuz, gure esperientzia linguistikoa beraiekin konpartituz.

ZUTABE: Zuk euskararen egoera linguistikoaz daukazu ezagutzarekin, egin al zenezake orain 30-35 urte hebraierak zeukan egoerarekin halako konparaketaren bat?

SHOVAL: Ez dut uste gaurengoko euskararen egoera orain dela 30-35 urtetako hebraierarekin konparatzen hastea egokia denik. Gure herriak independentzia lortu zuenean, orain dela 35 urte, hebraierak gaudituta zeuzkan arazo linguistiko gehienak eta hebraiera gure hezkuntza osoko hizkuntza zen, eskolaurretik hasi eta goi-mailako erakundeetaraino.

Gure gaurko literatura eta poesiaren hizkuntza zen, antzerkiaren hizkuntza, irriariarena, egunkariena; beraz... hizkuntza nazionala bezala ikusten genuen arlo guztietan.

Nire ustez, egokiago izango litza-teke gaurko euskara orain dela 70 urte inguruko hebraierarekin konparatzea, hebraieraz mintzatzen ziren juduak gutxiengo zirenean, hebraiera bizitza modernora egokitze prozesua hasten ari zenean. Garai hartan hebraieraren hedapena juduen artean ezinezkotzat jotzen zen.

ZUTABE: Zeintzu izan ziren he-

braieraren arazorik nagusienak Israel-ek bere independentzia politikoa lortzerakoan?

SHOVAL: Ordurako hebraieraren arazo linguistikoak gaudituta zeuden. Sortu zen arazoa zeharo beste era batekoa izan zen. 1948-1953-54 urteetan, 100 naziotako judu etorkinen masa handia iritsi zen; judu horiek 80 hizkuntza eta dialekto asko zituzten eta beren arbasoen aberrira zetozen. Une batean, etorkinak bertan bizi ziren juduak baino ere gehiago ziren. Arazoa, beraz, jende guzti honen hizkuntza hebraiera izan zedin lortzea zen. Orduan sortu zen *Ulpanen* ideia eta handik aurrera hebraieraren irakaskuntzarako metodologia berri bat garatuz joan zen.

Zorionez, 80 hizkuntza eta dialekto- ren aurka burrukatu behar izan genuen eta ez bat edo biren aurka. Etorriberriek auzokoarekin hitzgingo bazuten, hebraiera ikasi behar zuten.

ZUTABE: Zein izan da hebraiera berpiztu ahal izateko herri honek izan duen eragingarria?

SHOVAL: Teodoro Hertzl dokto-reak, azkenaldi honetako juduen historian aitzindaririk ospetsuenak, sionismoa sortu zuen, hots, Askatasun Nazionalaren Mugimenduaren berpiztea eta, une berean, Europako Ekialdean zenbait tokitako hizkuntzen berreskuratzeko lehenengo saialdiak gertatu ziren. Bi gertaerok batean jazotzeak eman zion hebraierari bere nortasun historikoa berpizteko aukera ezin hobe.

ZUTABE: Zein izan da Unibertsitatearen papera hizkuntza berreskuratzeko burruka-prozesu honetan?

SHOVAL: Goi-mailako irakaskuntzan dagoen lehenengo erakundeak, TEKNION izenekoak, 1913.ean eman zituen bere lehenengo pausuak, komunitate judu-alemaniarraren inizatibaz. Fundatzaileek, zientzia eta irakaskuntzarako hizkuntzarik egokiena alemana zela pentsatuz, inondik inora hizkuntza hori erabiltzea nahi zuten eta ez besterik.

Garai hartako komunitate judu-alemaniarraren jarrera ulertzekoa zen, zeren hebraierak goi-mailako hitzaldiak emateko oinarrizko hiztegiak ez izateaz gain, eguneroko erabilerarako ere behar hainbat hitz ez bait zuten.

Surrealista dei daitekeen fenomeno gertatu zen orduan. Izan ere, irakasleek, bai TEKNIONekoek eta bai garai hartako hezkuntz sistema guztiak, bere ongileen aurkako lehenengo greba egin zuten, hau da, komunitate judu-alemaniarraren aurkakoa.

Jende horrek ez zuen bere lan-baldintzak hobetzeko burrukarik egin, ezta beren soldata igotzeagatik ere; burruka, alemana hezkuntzarako hizkuntza izatearen aurka zen. Beraiek eginkizun horretarako hebraiera hartzea eskatzen zuten bortizki.

Ez dago dudarik, XX mendearen hasierako irakasle goaren burrukak, bere baitan zuten iraupen, gar eta sinismen osoarekin lortu zuela gaurregun Israelgo hizkuntza nazionala hebraiera izatea. 1925.ean, 12 urte geroago, Jerusalem-eko Unibertsitate Hebraitarra eraiki zenean, egoera linguistikoa nabariro aldatuta zegoen, nahiz eta Unibertsitate mailako irakaskuntzan hebraieraren egokitzapenak arazo asko zituen. Erakunde honek zerikusi handia izan zuen hizkuntza zientifikoaren prozesuan, hezkuntz sistema osoan ere eragin nabaria izan zuelarik.

ZUTABE: Gaurregungo Israelen eleaniztasuna dagoela esan daiteke. Batetik hebraiera hizkuntza normalizatua da eta, bestetik, arabiera, etorkinen ama-hizkuntzak, ingelesa eta frantsesa daude.

Esan al zeniezaguke, Shoval jauna, zein den hizkuntza horien egungo egoera?

SHOVAL: Egungo Israelen ia 20 hizkuntzatan aurki daitezke egunkariak. Irratiak 17 hizkuntzatan ditu saioak, georgiera eta errumanieratik hasita, ladino eta yiddish-eraino. Irratsaio hauek eta egunkariak axola handiko eginkizuna betetzen dute hebraiera ama-hizkuntza ez duten etorkin asko

eta askoren bizitzan. Baina, dudarik ez, hizkuntza hauek desagertzeaz daude, Israelen jaotako belaunaldi berriek hebraieraz mintzatzea nahiago bait dute. Hala ere, badaude gure hezkuntz sisteman ikasle talde txiki batzuek frantsesa baino ladinoa edota yiddisha ikastea nahiago dutenak, beti ere beren gurasoen tradizio kulturean jarraitu nahirik.

Hezkuntza Ministeritza hizkuntza hauek ikastearen alde dago, baina ez du ikasleengandik behar bezalako erantzunik jasotzen.

Badago, era berean, yiddish-ari dagokion katedra bat Jerusalem-eko Unibertsitate Hebraitarrean. Garbi adierazten du honek, gure herriaren historian hizkuntza honek utzitako tradizio kultural ederra gure artean mantentzearen desira. Zoritxarrez, ikastaro hau egiten ari den ikasle-kopuru murriztak ez du aurrerako esperantza handirik ematen. Beldur naiz, datozen belaunaldietan, yiddish-a eta ladinoa ez ote diren hizkuntz ikerlariarentzat bakarrik ezagunak izango.

Yiddish-aren eta ladinoaren bide beretik doaz Israelen hitzegiten diren gainerantzeko 80 hizkuntza eta dialektoak, zeren, lehen esan dudana bezala, belaunaldi berrien aldetik hebraiera hitzegiteko joera garbia dago eta ez beren gurasoen hizkuntza.

Etorkinen belaunaldiak bukatzearekin batera, hizkuntza hauek Israelen galdu egingo dira, zoritxarrez. Agian, mantentzeko aukera izango duen bakarra, Nazio Arabiarretako juduen arabiera izango da, oraingo gazteek izaten bait dute biztanlego arabiar-israeldarrekintz mintzatzeko aukera.

ZUTABE: Zein izan da Administrazio Israeldarren jarrera arabierarekiko?

SHOVAL: Nazioko hizkuntza ofizialak hebraiera, arabiera, eta ingelesa dira. Gehiengoak menderatzen duena hebraiera denez gero, hori dago beste hizkuntzen gainetik.

Bai arabiera eta bai ingelesa, kaleen izenetan eta beste iragarkietan azaltzen dira.

Badaude, era berean, irratsaioak arabieraz, egunean 5 orduz. Telebista Israeldarrak ere hiru ordu zuzentzen dizkio egunero biztanlego arabiar-israeldarrari, eta ematen dituzten filmak ere hebraieraz eta arabierazko azpitoluekin azaltzen dira.

1948.ean Israelgo estatua sortuz geroztik, ez da egon biztanlego juduaren aldetik inolako joerarik arabiera ikasteko, berehala ikasi bait zuten hebraiera arabiarrek.

Egiptorekin bake-ituna izenpetu zenetik eta gertaera politiko berriekin, nolabaiteko aldaketa somatzen da alde horretatik. Azkeneko lau hamarkadetan hainbeste gerra sufritu duen lurralde honek noizbait bakea izango duen esperantza sendotzen ari da.

Esperantza honetan bat datoz juduak eta arabiarrek. Esperantza hau Israelen bi aldetatik gutxienez ageri da:

- Hezkuntz sisteman.
- Gobernuaren jarrera ofizialean.

Honetaryo, esan beharra dago Israelgo Hezkuntz sisteman lau hizkuntza irakasten direla: hebraiera, arabiera, ingelesa eta frantsesa. Hebraiera eskola juduen hezkuntzako hizkuntza da, eta arabiera eskola arabiarrena. Ingelesa beharrezko bigarren hizkuntza da hezkuntz sisteman. Eta eskola juduetan, hirugarren beharrezko hizkuntzatzat, arabiera edo frantsesa aukera daiteke.

Garai batean, ikaslego juduaren gehiengoak frantsesa aukeratzen zuen hirugarren hizkuntzatzat, ikaslegotik ia 90%ek. Hala ere, azken 6 urteotan egoera biziki aldatu da eta arabiera aukeratzen duten ikasleen portzentaia 40% ingurura igo da.

Gobernu Israeldarrak, arabiarrek eta juduak elkarrekin bizitzeko duten sino bera onartuz, jarrera garbia hartu du alde horretatik. Arabieraren ikaskuntzari laguntzen dio, Ministeritza guztietako funtzionarioen artean. Bekak ematen ditu helburu horrekin eta, gainera, soldata kobratuz bi edo hiru aste-

tan lanera ez joateko baimenak ematen ditu.

Era berean, lurralde okupatueta funtzionari arabiarrek hebraiera ikasten dute. Bai arabiarrek eta bai juduek aho batez aitortzen dute bi hizkuntzok ez direla komunikabide hutsak, baizik eta bi herriek elkar ezagutzeko eta nork besteari bere kultura adierazteko medio ere izango direla, lurralde honetako bake-prozesuari lagunduko dion elkarren errespetua eta elkarren ezagutza lortuz.

Aipagarria da, orain dela hilabete, Kneset-en (Parlamentu Israeldarra) arabiera ikasteko ikastaro bati eman zaio hasiera. Ikastaro honetan Parlamentuko 90 kidek hartzen dute parte.

Orain urtebete, telebista israeldarra arabiera ikasteko oso programa-sail ona hasi zen ematen, Israelgo biztanle juduei zuzendua. Programa honetan ez da hizkuntza bera bakarrik irakasten, arabiarren tradizioak eta ohiturak ere irakasten dira.

Programa-sail honek arrakasta handia izan du maila guztietako israeldarren artean.

ZUTABE: Hitzegin iezaguzu ingelesaren garrantziaz, bai hezkuntz sisteman eta bai gizarte israeldarrean ere.

SHOVAL: Ingelesa da atzerriko hizkuntzen artean garrantzitsuena eta hedatuena. Hau ez da ingelesa ama-hizkuntza duten etorrikin asko direlako, poliki-poliki mundu guztiko hizkuntza frankoa bihurtzen ari delako baizik.

Goi-mailako ikasketak hasteko, nahitaezkoa da aurrez ingelesa jakitea. Ingelesaren garrantzia, egunkariak, liburuek, irratsaioek, antzerkiek eta abarrek ematen dute aditzera.

Areago, zenbait antzokitan, bai Tel-Aviv-en eta bai Jerusalem-en, hebraieraz aurkezten diren obretan, ingelesezko aldibereko itzulpena eskaintzen dute.

Bestalde, hamar urte baino gehiago da Israelgo telebista hezitzailea ingele-

saren irakaskuntzarako bitartekorik onena bihurtu dela.

Israelen ez dira atzerriko filmeak bikoizten; jatorrizko hizkuntzan ematen dira, arabieraz eta hebraieraz azpitituluak dituztelarik.

Ingelesez ematen diren filmeen kalitateari gehiegi begiratu gabe, ez dago dudarik, ingelesaren ikaskuntza bizkortzeko mediorik garrantzitsuenetakoa zinema dela.

Itzultzailea: Agurtzane Maiz